



LOURDES'KO ARTZAINTXOA ALDARETAN

Bernardetxo deuna.—Lourdes'ko
agerpenak.—Sortzez Garbia.

Egunokaz artzaintxo bat aldaretara jaso dausku Eliza Ama deunak. Zubiru'tar Bernardetxo dogu artzain zoriontsu ori; ama-zortzi aldiz Sortzez Garbia agiri izan yakon neskatxa. Au dala-ta, kistañok pozez gara, batez be euskotañok; Bernardetxo odolez euskotaña baitzan.

Lurdes! Nor ezta bertan, bein-edo-bein, izan? Baña bertan izan ezta be, gure aberian ba-dira, or-emenka, aren irudi ta arkaitz antzak. Gertaera atsigafien gomuta, nai ta nai ez, ludi zear bañeyatu bear. Bernardetxo'ren izena eurakin nastuta dabil; bera da, ba, jazokun arein gizuren. Oindiño irurogeta amabost urte baño eztira gertatu zirala, ta ara gaur ondi edo aldaretara jasota Andra Maria'k sortzetik garbia izan zala lurtañai adirazteko artu eban neskato bañuti ta apala.

Zubiru'tar Pantzeska ta Kasterot'ar Koldobike'k seme bi ta iru alaba euki ebezan; zañena, Bernardetxo, 1844'ko Uñila'ren 7'an jayoa. Ez eben aberaski askoren jabetzarik. Lenen bolu edo eñota baten bizi izan ziran, baña jarauntsia ordaindu ezin ebelako, antxiña gaztelu izandako etxe zañera aldatu eben euren bizitzia.

Amalau urtedun zala Bernardetxu uretan iñude izan eban emakumeagaz egoan Bartres eritxon eñian. Artzain iñarduan. Arazo au atsegin eta eder ei yakon; bildotsak laztandu ta laña gurietara eruan ondoren, mokor ganean jañi ta Agurtza esaten ei eban. Toles bako, zintzo, izakera gozoduna etoñen. Kistar-ikasbideko gauzarik urtenenak jakin añen, ikaste gitxi eban

oraindik. Gurasoak, ba, lenengo Jaunartzea be egin bear ebala-ta, ofetarako al bait ondoen gertau zadin, etxera ekafi eben.

Aratuste eguna zan; 1858'ko Zezela'ren 11'grena. Goxeko amaiketari bazkaria atontzeko egurik be etzan Zubiru-sendian, Koldobike'k. Bernardetxo'ren amak, bere alaba Miren zotzetan bialdu eban Gabe-efeka aldera. Bernardetxo be aizteagaz batera egur-bila joan zan. Gero bidean Jone eritxon auzoko beste nekato bat batu yaken. Zotzetan ugari zan lekura eltzeko, Masabiel'go arkatxetik ur egoan erotara ura eroyan nasia ibili beara zan. Garai artan, ofaitiño, etzan gaitz; erotia bafiztuten ebiltzalako, ura me joyan. Lagunak, onetakoak erantzita, laster beste aldera ziranaren, Bernardetxo bildur zan uretan sartzen, gexo samar ebulan-eta. Ibaian ari batzuk botateko eskatu eutsen lagunai; ofela onetako ta gusti igaro leitekean. Arek, baña, jaramonik ez. Ortoztuten asi ta lenengo galtzerdia erantzi ebanekoxe, aize-bolada antzeko zarata belafira yakon. Begiratzen dau zelaya, baña zugaitz-ofi baten ikararik be ezta nabazi. Apur bat afituta, onetakoak erazten diardu bañero; ta, bat-batean, lengo zarata berbera dantzu. So dagi aldamenetara, ta arkaktxak erdi alderantza eukan berezko zuloan gauza afigafia dakus: Andra Miren giza-soñez.

Bernardetxo'k, lilura zalakotan, begiak igurtzi ebazan. Ez, etzan, ofaitiño, lilura, ak uste lez. Andra zoragafia eukan begi aufean. Argi eder dirdiratsuz dagerkion; etzan sorgiñe be, egiazko Andra, osotasun esan-gatxezkoa baño. Txiki etzan, andi bez; ogei bat urteko zirudin. Arpegia, alai, maitagafi; zuri-zuri soñekoa; gefian girgil edo zinta urdiña; mutur biak, belaunetaraño dingilizka. Ortozik, eta oin-gain baktotxean ure margozko lafosa. Agurtza-garauak ekarzan atzartean eta otoiketari baliardun egiten eban. Bernardetxo be, au ikusiz, bereak sakeletik atara-ta, otoiztu nayan gurutz egiten asi zan; baña... aul, ez eban eskua jasoteko be indarik; bildura sartu yakon. Orduan Andra Maria'k berak gurutz-egin eban, eta Bernardetxo'k be, adoreturik, belaunbiko jafi, kristau-zantzu egin eta Agurtza diño. Berau burutu arte baño etxakon, ofaitio, zerutiko agerpena ikus-efez izan. Atzenez «Aintza Aitari» esan ebaneko, Bernardetxo'ri onen eztitsu ixan yakon Andrea'ren irudi dirdiratsua estali egin zan. Afetzkerok, arkaitzuloan inor etzan agiri; an-or lei biziz begira afen, inor bez.

(Jaraitzeko)

JAGOBA, K. O.



LOURDES'KO ARTZAINTXOA ALDARETAN

(Amaya)

Bernardetxo orduan oñetakoak erantzi ta urez beste alderatu zan. Efekekako ura epel etofen. Egur batzen ekioenak ezeben jazo zanaren bafi-izpik: zeozertxoren usma bai ofaitiño, azkatxera adi, Agurtza esaten ikusi eben Bernardetxo-ta. Onek diñotse. «Ezer ikusi dozue?» Areik: «Ez, ezertxu bez». Baña, zer dala-ta dagiskuzu itaun ori? Zerbait ikusi al dozu?» – «Nik, bai, zerbait ikusi dot, baña eztautsot iñori agertuko».

Egur-txortak lepoan, etxera etozala itaun eta itaun gogait be eragin eutsen lagunak, ta azkenez Bernardetxo'k iragafiko eutsiena ixilik eukiko ebela agindu eutselako, oso azaldu eban. Baña areik ezeben euren agindua bete. Etxera ziraneko, zeatz eta meatz amari esan eutsen. Amak, ostera, ezer agiri izan baldin ba-dakion sorgiñen bat izango zalakoaren bildufez, toki aretara geyago uferatu be egitea galerazo eutson. Gau artan loak ezaban Bernardetxo'ren begi-atietan olesik egin; naikoa eban, izan be, Andra gozo, zuriz jantziaren irudia urduri ebilkion gogoan-eta.

Bernardetxo'ri Masabiel'go arkaitz-ondora bafiro be juateko gurari beroak sartu yakozan, baña debekatu eutsolako, ezin. Auzoko neska-mutikoen artean laster zabaldu zan jazotakoaren bafia, ta andik iru egunera Bernardetxo'ren lagun askok be ara joan gura. Igandea zan. Jaupa nagusi ostean Bernardetxo'ri Gaba-aldera juaten isteko eska yoakoz Koldobike'ri; onek, lenen gura eztabe, itxi eutson. Pozafen joyan umetxu aldrea. Arkaitz ondora eldu ezkerro, belaunbiko jafi ta otoiketari ekion Bernardetxo'k; beingoan arpegi-antza aldatu yakon eta pozak arturik, «or dago! or dago! ta bafe dagi», ots egian. Bestiak, baña, ez

ekusen ezer. Ordun Bernardetxo'k, su-lezako gaizkiña zalakotan— Andra Miren zanik oindiño ez ekian— etxetik ekañitako ur onetsia arkatxera egotziz, begitan eukon Andra eder ezezagunari dirautso: «Jaunaren izenean baldin ba-zatoz, uferatu zadiz...» Arkatxa bafiro zipriztinduteko indañik ez eban izan. Andra Maria'k, burua zerbait makurtuz egiana edefetsi ta atsegin-tsu ifi-bafe egitson. Bernardetxo, arpegi ori, belauniko jaustenda ta sena doakio. Ordu laurenen bat ofela egiñik, etxera eroyela, seneratu zan.

Andik lau egun bafu be arkaitz ondora zan, idaztura, ingia ta idazkortza aldean ebazala. Beriala agiri izan yakon, beste egunetan baxen arpegi alai. Sasi-lafosondora uferatu ta gura ebana ingian idazteko eskatu eutsan. Eta Miren'ek: «Diñoketzu-dana zetan idatzirik eztago. Amabost egunez ona etofiko zakidaz?—«Bai, ta pozik», erantzun eutson Bernardetxo'k. Ta Andra Maria'k: «Nik, neure alde, zoriontsu egingo zaitut; ludi onetan ez, oster, bestian baño».

Biaramonean—Zezela'ren 19'an—asi zan Bernardetxu bere agindua betetan. Egunero, ara joten eban, eta beragaz lagun aldra andia; Masabid'en jazoten zanaren bafia baztañik-bazter edatua baitzan. Batzutan ogei miletik gora batzen ziran. Bertara orduko Andra Maria an egoan, eta Bernardetxo konorte barik, arpegiz alai, begiak goi, zabal, egon oi zan zati baten. Bein Miren'ek diñotso: «Oa itufira, bertatik edan eta garbitu adi; bere alboan ernetan dan bedafa jan egin». Ofela dagi; lur apur bat eskuz kendu ta, alazkiro, len legor egoan tokian ura jayoten da. Geroago ta geyago erion, eta laster sorburu andi egin zan; ona, afezkero ainbat afigafi egiñiko itufia.

Amos'ufena igaro ondoren be, Bernardetxo safi joyan ain atsegin yakon tokira. Otsala'ren 25'an, aingeruak Miren'i Josu'ren Ama izango zala iragafi eutson egunean, ara oster bat egiteko gogo bizia sartu yakon. Ara eldu ta Andra Miren'en aũfean egoala, bifitan itandu eutson nor zan, eta gotzonen Andereak darantzutso: «Sortzez Garbia nozu», ta amen baten ostendu zan.

Oraindik beste bi bidar eduki ebazan ikuspenaren gozotasunak. Karmel'go Amaren egunean azkenengoz. Egun artan lufeko ezegaz be bardindu ezin daitekean ifi-bafe gozoz agurtu eban Miren'ek ainbat aldiz ikertu eban artzaintxo zintzoa.

Bernardetxo Lurdes'tik at be oso ezaguna egin zan, eta alde gustietako afoztik askok Zubiru-sendikoen atietan ots-egien; arei, baña, ori etxakien onen atsegin, ludi-zarata-zaleak etziran

-eta. Bernardelxo elizkoya, apala, zintzoa ta garbia zan. Miren'ek bere magalpean eukon. Ainhai poziasun ekafi euisen basefi arei agur egin eta Never's'ko bakarregian lekaitime (moja) sartu zan andik urte baitzuetara, munduko zorakeriak iguingaifi yakozan-eta. Ainhxe bizi izan zan, Jaunak bere alizora deitu euison arite. Bere bearkunak oso-osorik bete ebazan. Berez, be makala zalako, asko jasan eban. Miren'ek ez euison, beste askori lez, osasunik emon; ez, emen lutean Jaunak bioltez malte dabezan gogoen antzera, gurutze andia eroan bear eban. Orela gero zorionean aruko eban sarria be andia izan bear'ko. 1879'ko Jof-aldia ren 16'an Sortzez Garbiari deika ta "Agur, Miren" oguzien, il zan, zintzoen erioizez.

Ogei ta anabosi urtedun il zan Bernardelxo'ren bizitza afigafia izan zan, eta 1908'gren urtean zorundunen malara jaso-teko asmoz lanean asi ziran. Gerora, il zanelik befogei ta amalau urte bati Eleiza Ama Deunak, artzainxoaren bizitza ondo azterituz-gero, zorundunen malara jaso ezeze, deun-ixendegian ezafi dau bere izena be. Igazko Sortzez Garbiaren egunean Eleizaren buru dan XI Pio Doipuruak, 24 janakordun, 100 Go-izain eta 50.000 lagunnen begilan, Bernardelxo *deuna* (sanja) dala esanaz, eleiz-epaya emon eban. Josu-Kisio'ren Ordezko dan Aia Saniuak Bernardelxo'ren aurrean belaunikoitu ta otoi egin dauiso. Jaunak, bene-benetan, apal eta zintzoak goresien ditu,

JAGOBA, K. O.



Karmen'go Ama zerura erodn equizuz

IL DIRANAK

Aitazu'n, abenduaren 25'an Ihuar'iar Julien.
Arela'n, Nelaondo'iar Miren.

Arantzazu'n, (Bizkayan) Aritexe'iar Kepa Andoni. (G. B.)
KARMEN'GO ARGIA'ren arpidedun izan dira, ta euren elxe'koai samindasunean lagunitzen dautsagüe, ta irakurleai il diranen alde g'ioitiz bai daskatse'güe.

Egi biribi

31. Luzaro bizileko biderik oner gutxi.
32. Egur busti ereak, bero gutxi
33. Biztaldia lanerako; i'obia lo
34. Bakorizak bere ate-aurrea gutzia garbi.
35. Len alan, orain
36. Begia
37. Bata
38. Batak bestegandik ikasteak bear.
39. Zuzenbidez ibiltako, iru mañara egizuz: Zeu, zeure sendia, ta zeure abete
40. Maite dogunak edozer eginda
41. Baña begiek lausotu ala biolzak atz
42. Gaizki egin dautsunari beste ki
43. Izun ezkeru, bape onura barik, kalle bi
44. Apal-arpegiz jantzi, ta onbide
45. irabazi.
46. Zeure lagunai bel'i on egin, atiz
47. g'izuzan: zeure arerioai (etsaya) be on e
48. izan ditezen.